



## Zubiak eraikitzeko

Elkarbizitzari buruz hausnartu dute lasarteoriatarrek asteon, 'Bizikidetzeta Lantzen' jardunaldietan / 2

TXINTXARRI

## Aldarrikapen astelehena

Ekitaldi bat baino gehiago izango dira Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean / 8-9

**Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi lasarteoriatarrek oroitzeko ekitaldiak egin dituzte / 6**

**Ostadar Atletismoko kideek pista estaliari agur, Euskadiko txapelketako podiumean / 10**

**2MÓ  
99€**



betaurreko graduatuak  
(batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

**SPRING  
IS  
MÓ**

R.P.S. 91/20 I.L.G.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**

www.multiópticas.com   

# Bizikidetza landu, urratsak egiteko

Elkarbizitzari buruz hausnartu dute lasarteoriarrek asteon. Asteazkenean, kultur etxean izan da 'Zubiak' dokumentaleko protagonistetako bat, Maixabel Lasa, eta solasaldia eskaini du. Ostegunean, berriz, polizia-indarkeriaren biktimei buruzko mahai-ingurua izan da kultur etxean

## Txintxarri

ETAko Buruntza komandoak Gipuzkoako gobernadore zibil izandako Juan Mari Jauregi erail zuen 2000. urteko uztailaren 29an, Tolosan. Ibon Etxezarreta Etzaniz lasarteoriatarra izan zen atentatu horretan parte hartu zuen pertsonetako bat, eta baita ia hemeretzi urte beranduagoko *Zubiak* dokumentaleko protagonistetako bat. Bestea, berriz, Jauregiren alarguna, Maixabel Lasa. Azken horrek bazkaltzera gonbidatzen du Etxezarreta, senarra zenaren heriotzaz hitz egiteko.

Luzemetraia hori ikusi dute lasarteoriarrek asteazken arratsaldean, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. *Bizikidetza Lantzen* jardunaldien lehen saioa izan da. Baketik fundazioak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatu dute ekitaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Bigarren saioa ostegunean izan da, kultur etxeko hitzaldi-aretoan, 18:30ean, TXINTXARRI-k edizioa itxita zuela. Ana Isabel Perez Machio eta Laura Pego Otero adituek *Indarkeria polizialaren biktimen aitortza eta erreparazioa* mahai-ingurua eskaini dute, elebitan.

*Zubiak* ikusi eta gero, dokumentalaren protagonistetako bat, Maixabel Lasa, ikus-entzuleekin solastu da. Azaldu duenez, ETaren biktimen eta erakunde horretako kide izandakoaren arteko topaketak egiteko proiektua 2011n hasi zen, bera oraindik Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako zuzendari zela. "Poztu gintuen proposamen horrek". Urte horretako maiatzean Luis Carrascorekin elkartu zen, Buruntza komandoko beste kideetako batekin, espetxean. "Eskertu nion ETArekin hausteko erabakia hartu izana. Niretzat, hori egiteko gai izateak ausardia erakusten du, esanahi indartsua



Maixabel Lasa, asteazken iluntzeko jardunaldiko solasaldian. TXINTXARRI

## MAIXABEL LASA: "GUZTIOK DUGU ESKUBIDEA BIGARREN AUKERA BAT IZATEKO"

du, heroiak izatetik traidoreak izatera igaro baitziren, horrek esan nahi duen guztiarekin". Ibon Etxezarretarekin, berriz, hiru urte beranduago bildu zen aurreneko aldiz, eta, urteen poderioz, harremana estutu dute, dokumentala grabatzeraino.

### Itxaropen-mezua

"Ikus-entzunezko hori grabatzea proposatu zigutenean, Ibon eta biok kontziente ginen gizarateak entzungo gintuela, eta itxaropenezkoa izan behar zuela mezua, etorkizunera begiratzekoa", azaldu du Lasak. "Uste dut dokumentalak oso ongi azaltzen duela Ibonek egin duena, ez dela duela bi hamarkadako pertsona bera, berreskuratutituela duintasuna eta askatasuna, preso baitzegoen, ez soilik zigorra betetzeagatik; ETaren gatibu ere bazen".

"Guztiok dugu eskubidea bigarren aukera bat izateko", azpimarratu du Lasak. Haren hitzetan, mezu hori garrantzitsua da, elkarbizitza sendotzeko eta zubiak eraikitzeko urratsak egin nahi badira.

Dokumentallean, bi protagonistak bazkaltzen ari direla, honakoa esaten dio Lasak Etxezarretari: "Nik ez dizut esango barkatzen dizudan ala ez, baina bigarren aukera bat eman nahi dizut". Eusko Jaurlaritzako Biktimen Arretarako zuzendari ohiak azaldu duenez, *barkamena* hitzak konnotazio erlijiosoa du, eta bera fededuna ez denez, nahiago du *bigarren aukera* bezalakoak erabili. "Bakoitzak aukeratzen ditu erabiltzen dituen hitzak, eta printzipioak ere bai".

Lasak esan duenez, ez da "inor baino hobeto ala okerrago" sentitzen ETakide ohiekin elkartzeko hasi eta dokumentalaren gisako proiektuak egiteagatik, baina "errespetatua" izan nahi duela argi utzi du. "Biktimak, gizarate osoa bezala, pluralak gara, desberdin pentsatzen dugu; desados egoteagatik ez diozu gauzak egiteari utzi behar".



Ezker-eskuin: Ana Mugica, Larraitz Izagirre eta Jon Antxordoki. TXINTXARRI

## Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egiteagatik, saria

Eskualdean, 87 ikaslek atera dute gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz, 2019an baino 37 gutxiagok

### Txintxarri

Larraitz Inza Izagirre gaztea izan da 2020. urtean eskualdeko sei udalerriek burutzen duten *Gidabaimena euskaraz* egitasmoan parte hartu duen herritarretako bat: agiri horren atal teorikoa euskaraz atera, eta Lasarte-Orian egin den zozketa irabazi du. Asteazkenean jaso zuen saria, Mugica autoeskolako ordezkari Ana Mugica eta Lasarte-Oriako Euskara batzordeburu Jon Antxordokiren eskutik. Buruntzaldea osatzen duten sei udalek 2009. urtean jarri zuten martxan egitasmoa, "helduarorako urrats garrantzitsu eta erakargarri bat" euskaraz egiteko aukera emateko asmoz.

*Gidabaimena Euskaraz* egitasmoan 108 pertsonak parte hartu dute azken hamar urteetan, batez beste. Guztira, 1.080 animatu dira agiri horren atal teorikoa euskaraz egitera, 2011 eta 2020a

bitartean. 2014an jo zuen goia parte-hartze kopuruak: 140 ikasle animatu ziren urte horretan. 2019ko eta iazko datuen artean badago alderik: 124 eta 87 ikaslek eman zuten izena, hurrenez hurren. Buruntzaldeako Euskaraz-zerbitzuek aditza eman dutenez, COVID-19aren pandemiak eragina izan du: "Normalean baino jende gutxiagok atera zuen agiria".

### Gutunak lasarteoriarrei

Lasarte-Oriako datuei erreparatu gero, bederatzi pertsonak atera dute gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz; guztiek, Mugica autoeskolaren Sei herritarrek izan dira. Egitasmoak martxan segiko du 2021. urtean: maiatzean "bultzada berezi bat" emango diotela aurreratu dute eskualdeko euskara-zerbitzuek. Lasarte-Oriako Udalak gutun bana bidaliko die 18 urtetik gorako herritarrei, eta parte hartzera animatuko.

## Lasarte-Oriako intzidentzia-tasa, kopuru apalenetan

Koronabirusaren intzidentzia aspaldian ez da hain baxua izan Lasarte-Orian. Hala erakusten du, besteak beste, intzidentzia-tasa metatuak –azken hamalau egunetan zenbat kasu atzeman diren, batez beste, 100.000 biztanleko–: Eusko Jaurlaritzak adierazle hori erabiltzen hasi zenetik, asteon erregistratu dira zifra baxuenak gure herrian.

Orain arteko apalena, asteartean, martxoak 2: 84,01, gune berdetik oso gertu –0tik 60 kasutara–.

Asteazkeneko datuak izan dira TXINTXARRI-k kontsultatu ahal izan dituen azkenak edizioa itxi aurretik. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera, kasu bakarra diagnostikatu zen egun horretan Lasarte-Orian, urteko hirugarren hilabeteko bigarren kutsatzea. LABI batzordeak gaur iragarriko du, ostiralarekin, indarrean dauden neurriekin zer gertatzen den.

# Askotariko kultur ekintzak martxorako

Argazki-erakusketak, haur eta helduentzako film eta antzerkiak, operak eta bizikidetzajardunaldiek osatu dute martxoko kultur agenda. Lesbosen errefuxiatuen egunerokoa ekarri du Merceron, astelehenaz geroztik ikusgai dagoen argazki-erakusketak

## Txintxarri

Kultur ekitaldi bat baino gehiago izango du hasi berri dugun hilabeteak. Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du martxoko kultur agenda, eta askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango dute lasarteoriatarrek.

Argazki erakusketak batekin zabaldu dute agenda. Astelehenean zabaldu zituen ateak eta hilaren 14ra arte izango da bisitatzeko aukera. Greziako Lesbos uhartean bizi diren errefuxiatuen egunerokoaren berri jaso ahal izango dute.

Horrez gain, etxeko txiki zein gurasoek haurrentzako edo helduentzako zinema saioez gozatzeko aukera bat baino gehiago ere izango dituzte. Horien artean, *Entre nosotras* helduentzako filma eta *El pequeño vampiro* izango dira ikusgai. Okendo Zinema Taldearen eskutik ere ikus-entzunezko hiru saio izango dira eta horien artean, euskal dokumentalak zikloaren barruan *Non dago Mikel* dokumentala ikusteko aukera izango dute herritarrek.

Opera saioak ere ez du hutsik egingo, eta antzerkia, ipuin kontalaria eta bizikidetzajardunaldietan parte hartzeko aukera ere izango dute herritarrek.

## Martxoko kultur agenda

- **Martxoaren 1etik 14ra:** Lasarte-Oriatik Lesbosera argazki erakusketak. Mercero aretoan.
- **Martxoak 3:** Bizikidetzajardunaldia: 'Zubiak-Puentes' dokumentala, 18:30ean.
- **Martxoak 4:** Bizikidetzajardunaldia: 'Indarkeria polizialaren biktimen aitortza eta erreparazioa' mahai-ingurua, 18:30ean.
- **Martxoak 6:** 'Trabajos de interior' helduentzako filma, 19:00etan. Sarrera, 3 euro.
- **Martxoak 7:** 'El pequeño vampiro' haurrentzako filma, 17:00etan. Sarrera, 3,80 euro.
- **Martxoak 9:** 'Emakumeak kontu kontari...eta kantari' ipuin kontalaria, 18:00etan. Gonbidapenak eskuratzea ezinbestekoa da.
- **Martxoak 10:** 'Rigoletto' opera, 18:00etan. Sarrera, 7,5 eta 9 euro artean.
- **Martxoaren 12:** Okendo ZTren eskutik 'The father' filma, 19:00etan. Sarrera, 5,50 euro.
- **Martxoak 13:** 'Alpha' familia antzerkia, 17:00etan. Sarrera, 3,80 euro.
- **Martxoak 14:** 'El padre' helduentzako filma, 19:00etan. Sarrera, 5,50 euro.
- **Martxoak 20:** Zinegoak Jaialdiko film laburren proiektzioa, 19:00etan.
- **Martxoak 21:** 'Kraston ikastetxea: munstroen eskola' haurrentzako filma, 17:00etan. Sarrera, 3,80 euro.
- **Martxoak 26:** Okendo ZTren eskutik 'Non dago Mikel' dokumentala, 19:00etan. Sarrera, 5,50 euro.
- **Martxoak 27:** Okendo ZT-ren eskutik 'Caminho longe' dokumentala, 19:00etan. Sarrera, 5,50 euro.
- **Martxoak 28:** 'Entre nosotras' helduentzako filma, 19:00etan. Sarrera, 5,50 euro.



NEURE KABUZ

ASIER ODRIOZOLA

## Aldapa gora

Belaunaldi guztiek euren zailtasun eta xarmak dituzte. Garbi dago gureak, zentzurik zabalenean hartuta, ez duela aurrekoen egoera gogorrik bizi izan zorionez. Ez gerra irekirik, ezta beraz gerraoste gorririk ere. Ezagutu izan ditugu euskal gatazka, noski, petrolioaren, etxebizitzaren burbuila lehertzearen eta beste hainbat krisi baina gerrarik ez. Hori aldeko dugu noski, baina, aldi berean, ez gara bereziki zaildutako edo "heldutako" gizartea. Bide gozoan ohitzeak bigundu egiten du pertsona eta horrek ez du uzten zailtasunei aurre egiteko lanabesik sortzen. Alegia, aurreko mendearen lehen herenean izan ziren gatazka armatu eta gerra zibilaren ondorioz egoera gogorrera ohitu ziren gure aiton-amonak, eskasian bizitzen asmatu izan zuten eta bizitzari eskatzen ziotena horren arabera zen. Gu ordea askoz exijenteagoak gara: ohitu egin gara bizi maila onean bizitzen, bidaiatzen, tabernatako terrazatan orduak pasatzen eta bizimaila "altu" hori normalizat hartzen.

Munduko paraje gehienetan gertatzen denarekin erkatuta, ez da hala, ordea, eta lehen aipatutako belaunaldiekin alderatuz gero, zer esanik ez. Horregatik, pandemia garaian egokitu zaizkigun estura, muga eta bestelakoan aurrean arrenkura gehiegizkoa agertu baino lehen hausnarketatxo egin beharko genuke beharbada. Nik hala egin dut eta umiltasun gehiagoz begiratu diot bizi dugun aro honi. Hori, bai Lasarteko kaferik onena hartuz etorri zait burutazioa. Gustukoari uko egin gabe alegia.



TXEMA VALLES

## Celestino Riveraren azken lana

COVID-19aren pandemia iritsi berritan hasi zen Celestino Rivera herritarra bere azken lana egiten, ohi bezala, etxeko garajean. Pablo Picassoren *Gernika* lan ezaguna zizelkatu du, Aieteko jauregian zegoen mahai bateko zumar-egurra erabilita. Hasi eta ia urtebetera amaitu du koadroa.



# Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Eskuz egindako **BI KOADERNO** zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eskuz eta betez ere **MimoZ** egindako **kuaderno txiki eta handi** bat eskura ditzakezu. Eman izena martxoaren 28a baino lehen.



@mimozkoadernaketa

harpidetza@ttakun.eus helbidean | 646. 82 44 66 (whatsapp)

GIZA BALOREETAN ESPEZIALISTA

LIBURUAREN AURKEZPENA

IZENBURUA: GRACIAS

IDAZLEA: CARMEN ATALAYA REVILLA

EDITORIALA: UNIVERSO DE LETRAS

ISBN/13 : 9788418570544.

PREZIOA: 14 euro



C.A.R.  
servicios socioculturales  
La Magia de los Ancestros

Aurrez aurreko zein online ZERBITZUAK, GAZTELANIAZ: Aisialdi adimendua. Hazkunde pertsonalerako, gaixoak animatzeko, senideren bat gaixorik duten familientzako, desgai-tuentzat, abenturazaleentzat eta abar sortutako zerbitzuak.

www.lamagiadelosancestros.com  
Youtube: Servicios Socioculturales CAR.  
Harremanetarako: 620-19-34-47

# Harrera ona, aurtengo itsaspeko zinema zikloak

Amaitu da aurtengo itsaspeko zinema zikloa. Ikus-entzunezkoak, argazki erakusketa eta ikastetxeetako 'Txikizikloak' osatu dute aurtengo egitaraua, eta antolatzaileek jakitera eman dutenez, geroz eta interes handiagoa pizten du zikloak herritarrengan

## Txintxarri

Amaitu da 2021eko CIMASUB itsaspeko zinema zikloa. XIII. edizioa izan da aurtengoa, eta hiru egunez ibili dira lasarteoriatarrak Manuel Lekuonako auditorioan, joan-etorrika, ikus-entzunezkoekin gozatuz.

Hamahirugarrenez, itsaspeko "edertasunaz eta misterioaz" gozatzeko aukera izan dute bertaratu diren ikus-entzule guztiek. Horrela azaldu du David Sanchezek, itsaspeko zinema zikloko arduradunak. Gaineratu du, edertasunaz gain, itsasoak honoan ezkatzen duen errealitate "triste" baten berri ere izan dutela zikloan parte hartu dutenek; kutsadurak eragindako errealitatearena hain zuzen ere: "Kutsaduraren ondorioz itsasoko belar zein animalia espezieak nozitzen ari diren ondorioak begibistakoak dira; eurekiko errespetua ezinbestekoa da gure itsasoen biziraupenerako, eta, noski, gurerako ere bai".

## Eskertza

Real Sociedadeko Itsaspeko sailak, Danok Kide elkartearekin eta Lasarte-Oriako Udalarekin batera, eskerrak eman dizkiote aurtengo itsaspeko zinema



Itsaspeko zinema zikloaren antolatzaileak, kultur etxeko ekitaldi batean. TXINTXARRI

zinklora gerturatu direnei: "Bizi dugun pandemia egoeran gerturatu den jende kopurua ikusita, argi geratu da ekimenak geroz eta interes handiagoa pizten duela jendearengan".

Ikus-entzuleengandik jaso dituzten "iritzi positiboek" lanarekin aurrera jarraitzeko indarra ematen diela ere nabarmendu du Sanchezek.

## Harrera ona

Zinema zikloko hiru proiektioetan 300 pertonek parte hartu dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Guztira 27 laburmetraia eta bi dokumental eman dituzte hiru egun horietan zehar. Horrekin batera, Sasoeta ikastetxeetako ikasleek ere parte hartu dute aurtengo *Txikizikloan*. Lau laburmetraia ikusi dituzte eta aldaketa klimatikoaren inguruko hitzaldi batean ere parte hartu dute. Landaberriko ikasleek egun hauetan gozatu ahal izango dute *Txikizikloaz*, ikastetxean bertan.

Argazki-erakusketak ere bisitari ugari jaso ditu. Guztira aurkeztutako 345 argazkietatik 25 onenak egon dira ikusgai.



Zubietan kokatuta dago Usurbilgo Lanbide Eskola. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

## Ikasle gazteentzat, ate irekien jardunaldiak martxoaren 10ean

Usurbilgo Lanbide Eskolak zer eskaintzen dien erakutsiko die DBH eta Batxilergoa ikasten ari diren neska-mutilei

## Txintxarri

DBH edo Batxilergoa ikasten ari diren gazteei zer eskaintzen duen erakuste aldera, Usurbilgo Lanbide Eskolak ate irekien jardunaldia antolatu du martxoaren 10ean, asteazkenarekin, arratsaldean. Izen emateko, [www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus) web-orriko formulario bat bete behar da. Usurbilgo Lanbide Eskolak jakitera eman duenez, jardunaldietara joateko asmoa duten ikasleekin talde txikiak osatuko dituzte.

Erdi Mailari dagokionez, hauek dira zikloak: Administrazio Kudeaketa, Instalazio Elektriko eta Automatikoak, Hozteko edo Beroa Sortzeko Instalazioak eta Mekanizazioa. Goi Mailakoak: Administrazioa eta Finantzak, Automatizazio eta Robotika Industrialak, Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa, Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza

Termikoen Mantenua, Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa, eta Energia Berriztagarriak.

## Praktikak enpresetan

Enpresetan praktikak egiteko aukera bat baino gehiago eskaintzen die ikasleei ULEk. Alde batetik, "betiko praktika aldia" egin dezakete gazteek, bigarren ikasturtean: hiru hilabeteko egonaldi bat enpresa batean. Bestetik, programa duala egin dezakete, eta ikasketak eta lana uztartu, ikasturte oso batean zehar, kontratu eta guzti. Lehen ikasturtean ere murgil daitezke lan-munduan, *Enpresan Prestakuntza* egitasmoaren bidez.

COVID-19a tarteko, ULEk ezin izan du atzerriko egonaldirik antolatu aurrean, baina, jakinarazi duenez, lanean ari da 2021-22 ikasturtean hori hala izateko, egoerak ahalbidetuz gero, noski.

## Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazi dio herriak

Hamarnaka bizilagun elkartu dira Okendo plazan otsailaren 27an, SEAD errepublikaren 45. urteurrenean

## Txintxarri

SEAD Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren aldarrikapenaren urteurrenean, otsailak 27, hamarnaka herritarrek parte hartu zuten Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazteko

elkarretaratzean. *Maroko Saharatik at!! Independentzia* zioen pankarta eusten zenbait saharar izan ziren, tartean, herrian bizi den Salec Mohamed eta Mustafa Sid Bashir kazetaria. Hogeita bat minutuz musikak lagunduta,

Sahararen aldeko zenbait aldarri oihukatu zituzten. Ondoren, Sid Bashirrek hartu zuen hitza. Bertaratu izana eskertu zien lasarteoriatarrei eta egungo gerraren ondorioz sahararrek bizi duten egoeraren berri eman zuten.

Sahararekin elkartasuna Lasarte-Oria taldeko kideen mozioari erantzunez, udal ordezkariak aho batez adostu zuten elkartasuna adieraztea eta 45. urteurrenaren ospakizunekin bat egitea, beraz, otsailaren 26tik SEADeko bandera udaletxeko balkoian izan da.



'Maroko Saharatik At!! Independentzia' lelopean egin dute elkarretaratzea. TXINTXARRI



## SARI BANAKETA



Aner, Noa, Xuban eta Keira, Maite paper-dendan, saria jasotzen. TXINTXARRI



Naroa Larrañaga, Patxi Larrañaga, Maitane Rebe (irabazlea) eta Ana Iparragirre. TXINTXARRI



Ander Rekondo, Maitane eta Jokin Ayerregaray (irabazleak). TXINTXARRI



Meme Cruz, Oliver Lopez eta Carlos Blanco. TXINTXARRI



Olaia Holgado, Nahia eta Ekhi. TXINTXARRI



June, Amaior, Sheena, Paula eta Garazi (goian), Maialen, Sara, Laia, June, Udane, Naroa eta Amaior. TXINTXARRI



Enara, Sara eta Malen (goian), Helene, Ane eta Oihane (behean).

## 'LasARTE-Oria' argazki-lehiaketako sari banaketa

Joan den asteburuan zehar poltsikoratu dituzte erosketa-bonuak aurtengo Inauterietako argazki-lehiaketan parte hartu duten herritarrek. Irakurleek eta lau kidez osatutako epaimahai batek erabaki dituzte saridunak. Mozorro landuak prestatzen trebetasun handia erakutsi dute denek! Zorionak guztioi, eta gozatu sariez!

# Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi oroitu dituzte

Mendi-martxa, talde-argazkia, adierazpen instituzionala... Herritarrek zein alderdi politikoek ekitaldiak egin dituzte, duela hemezortzi urte auto-istripu batean bizia galdu zuten bi herritarrek gogoratzeko. Juankar Balerdi senidea bisitatzera zihoazen Almeriako espetxera

## Txintxarri

Otsailaren 28an bete ziren hemezortzi urte Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi auto-istripuz hil zirela, haien seme eta anai Juan Karlos Balerdi bisitatzera Almeriako espetxera bidean zihoazela. Bi herrikideak gogoratzeko, mendi-martxa antolatu zuen Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak: hamarnaka lasarteoriatar ibilian-ibilian joan ziren Teresa tegi mendiko oroitarriraino, Okendotik eta Zabaletatik bi zutabetan abiatuta. Iritsi eta gero, ekitaldi bat egin zuten: adierazpen bat irakurri, Hertzainak taldearen 564 abestia kantatu, eta larrosa gorri bana utzi.

Menditik itzuli zirenean, Okendo plazan elkartu, eta talde-argazki bat atera zuten; *Dispertsioa hiltzailea. Argi eta Iñaki gogoan* lelodun afixa bat erakutsi zuten. Ez zen kartel bakarria izan, ekitaldian zehar

gehiago erakutsi baitzituzten: *Argi eta Iñaki gogoan zaituztegu* irakur zitekeen Ernai Lasarte-Oriak egin zuen afixan.

## Adierazpen instituzionala

Askatasunaren parkean dagoen oroitarrarian elkartu ziren Lasarte-Oriako EH Bilduren ordezkariak igandean, bi lasarteoriatarrek gogoratzeko, haien argazki bana jarrita. Abagunea baliatuta, dispertsio politikaren amaiera eta biktima guztientzat "egia, justizia, erreparazioa eta diskriminazio eza" eskatu zuten.

Hemezortzi urte bete ziren otsailaren 28an Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi auto istripuan hil zirela, Almeriako espetxera bidean. Joxe Balerdi, Juan Karlos Balerdi presoaren aita, berriz, larriki zauritua gertatu zen. Bi lasarteoriatarrez gain, beste hamalau senide eta lagun ere zendu ziren ezbeharrean. Oroitza xumea egin dio aurten ere

Lasarte-Oriako EH Bilduk eta idatzi batean salatu du haien "memoriaren aitortza eskubidea urratzen" ari direla.

Memoria ariketa egin eta horrelakorik gerta ez dadin sufrimendu guztien onarpenean urratsak egin behar direla uste du alderdiak. Hala, elkarbizitza demokratiko bat eraikitze bidean ezinbesteko pausotzat jo du urtarrileko udalbatzarrean, lehenengoz eta aho batez, alderdi politiko guztiek bat egin izana Iturralde eta Balerdiren senideen oinazearen aitortzan, dispertsio politikarekiko desadostasunean eta urrunketarekin amaitzeko eskaeran. Era berean, preso politikoen giza eskubideak nahiz senideenak urratzen dituela gogoratu du, "senideak kondenatuak izan gabe, zigortuak izaten baitira". Horregatik, dispertsioarekin amaitzeko deia egin du alderdi abertzaleak.



Pasa den asteburuan hiru ekitaldi egin ziren herrian. ERNAI L-0 ETA TXINTXARRI

## Otsaileko 'Azken Ostirala', herrian barrena

Hilabete amaiera guztietan bezala, *Azken Ostirala* ekintza egin zuten otsailaren 26an Lasarte-Oriako Sarek eta Etxeratak, ostiralarekin. 80 bat lagun batu dira presoen eskubideen aldeko mobilizaziora. Elizatzen elkartu ziren. Segurtasun-tartea errespetatuta, ordu laurden inguruz pankarta atzean egon ondoren, Kale Nagusiko errepidera irten, eta Tajamar biribilgunea inguratu zuten, kalean behera Okendora bidea hartu aurretik.

Plazan, Ixiar Arteagak Sarek eta Etxeratak adostutako idatzi bat irakurri zuen. Bertan, Espainiako Barne Ministerioak espetxeak "blindatzeko" hartutako neurriek presoen eskubideengan dituzten ondorioak jaso dituzte. Tartean, familiako komunikazioak eta mintzalekuko bisitak etetea. "Estatuek espetxe barruan beste espetxe bat eraikitzea erabaki dute, espetxeak itxiz, egoera ahal den heinean

arintzeko neurriak hartu beharrean". Arrisku taldea badira ere, haien osasuna ahalik eta gehien babesteko neurriak ez direla hartu ere salatu dute, hala nola, kalitatezko musukoak emanez, kopuru egokian, edota txertoa jartzera koan lehenetsiz. Bisitak eta komunikazioak lehenbailehen berreskuratu behar direla aldarrikatu dute, baita lekualdaketen eta hurbilketen berrezartzea ere. NBEK, OMEK eta Europako Kontseiluak gomendatutakoaren arabera, euren osasun eta bizitzarako eskubidea bermatzeko preso askok "gaixotasun larriak dituztenetatik eta 65 urtetik gorakoetatik hasita" aske egon beharko luketela ohartarazi zuten.

## Herriko presoen egoera

Jarraian, Joxe Mari Agirretxek herriko presoen egoerari buruz hitz egin du. Lannemezaren diren Aitzol Iriondok eta Ibon Fernandez Iradik

lau hilabete daramatzate, ilobak eta semeak, hurrenez hurren, ikusi gabe; adin txikiorik ezin delako kartzelan sartu. Horrez gain, astean bisita bakarria jaso dezakete pertsona bakarrarekin. Jabi Gallagari dagokionez, berriz, hilabeteak igaro ditu bisitarik gabe; eta orain, astean bakarria izan dezake, baina kristal atzetik.

Pandemia garai honetan, presoek berez gutxituta dituzten eskubideen "murrizketa bikoitza" jasaten ari dira Agirretxeren hitzetan, "bigarren mailako herritar bezala tratatzen dituzte". Horren adibide, proba batzuk egiteko ospitaleratu dutenean, inork ezin izan du Fernandez Iradi lagundu eta ez zegokion elikadura jaso duenez, "osasunerako mesede beharrean kalte" egin diola espetxetik irteteak.

Datozen hilabeteetan mobilizazioekin jarraituko dute eta egingo dituzten zenbait ekimenetan parte hartzea deitu ditu



bertaratutakoak. "Bil gaitzen eta egin dezagun beharrezkoa den guztia euskal presoak lehenbailehen etxeratzeko". Baita materiala erosiz lanean ari den taldea babes dezaten eskatu ere, pandemiak horri ere eragin baitio. Lannemezango kasuan, Frantziako gobernuaren betekizuna da bisita egiten duten aldiro aurrez PCR proba egitea -125 euro-. Bidaia, egonaldia eta presoen beharrei erantzuteko gastuei gehitu beharreko beste kopuru bat.

# Erakusketa eta lehen pertsonan testigantza

Greziako Lesbos uhartean bizi diren errefuxiatuen egunerokoa ekarri dute Miren Bardaji lasarteoriatarrek eta Yousef Alshewailik errefuxiatu irakiarrak Mercero aretora. Hilaren 14ra arte dago bisitatzeko aukera; astebarruan, arratsaldean, eta asteburuetan, goizean

## Txintxarri

*Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera* ekimenak ekitaldi hunkigarri bezain goxoa egin zuen abenduaren 10ean, Manuel Lekuona kultur etxean. Miren Bardaji herritarra Greziako Lesbos irlako errefuxiatuekin egiten ari den lana gizarteratzeko asmoz antolatu zuten egitasmoa, eta, horrekin batera, Bizipozaren barruan dauden elkarte ezberdinen aurkezpena ere egin zuten.

Iragarri zuten orduan, martxoan argazki-erakusketa bat ere egingo zutela, eta hala egin dute, astelehenaz geroztik, Lesboseko kanpamentuan

errefuxiatuek bizi duten errealitatea gizarteratzeko eta salatze asmoz (hilaren 14ra arte egongo da ikustera joateko aukera). Argazkien bidez, lehen pertsonan jaso ahal izan dute Lesboseko egoeraren berri erakusketara gerturatu diren herritarrek. Izan ere, Greziako uhartean errefuxiatuekin lanean ari den Miren Bardaji herritarra bertan izan da astearte arratsaldean.

Urte eta erdi darama herritarrek Lesbosen, eta senide eta lagunak bisitatzera etorri da. Bisitatzera, bai, hilabetea bukatzerako berri ere Lesbosera bueltatzeko asmoa baitu.

Bere ahotik jakin dute zein den Lesbosko errefuxiatuen kanpamentuan bizi diren pertsonen egoera latza. Erakusketa osatzen duten irudietan ikus daitekeena gertutasunez jaso dute ikusleek, eta eskertu dute aurrez aurreko testigantza hori.

Oso esker oneko agertu da Lasarte-Oriarekin Bardaji, abenduaren 10eko ekitaldia antolatu eta bertan parte hartu zutenekin.

Astegunetan 18:00etatik 20:00etara bisitatu daiteke erakusketa, eta, asteburuetan, berriz, 11:00etatik 13:00etarako ordutegian, Mercero aretoan.



Sara Etxebarria artistaren margolana ere ikusgai dago erakusketan. TXINTXARRI



Lesbosko errefuxiatuen kanpamentuko errealitatea bildu dute argazkietan. TXINTXARRI

# Ostalaritza zaintzeko eta errespetatzeko

Lasarte-Oriako ostalariak sentsibilizazio-kanpaina bat jarri dute abian. Herritarrei eskatu diete arauak bete ditzatela taberna nahiz jatetxeetan daudenean, arazo ekonomiko edo sanitarioa saihestu eta herriaren irudi negatiboa ez sortzeko

## Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak herriari pandemiaren neurriak eta murrizketak ez betetzearen inguruan berriki egin dituen adierazpenaren harira, Ostalaritza Lasarte-Oria elkarteak kideek sentsibilizazio kanpaina bat abian jartzea erabaki dute. Haren nondik norakoen berri otsailaren 26an Okendo plazan egindako prentsaurrekoan eman dute. Iñigo Encinasek eta Ruben Amenabarrek irakurri dute prestatutako idatzia, sektoreko beste profesional batzuk eta kideetako batek egindako panpinak lagun zituztela.

Ostalaritza Lasarte-Oria elkarteak bazkide diren taberna



'Ostalaritza zaindu eta errespetatu' kanpaina jarri dute martxoan ostalariak. TXINTXARRI

eta terrazetako mahaietan bete beharreko neurrien berri ematen duten afixak jarriko dituzte.

## Parte-hartzearen garrantzia

"Kartel hauek ostalariak arauak betetzen egindako lan onaren berme dira" eta bezeroei eskatu diete jarrera bera izateko, "denok bat eginda joateko". Arauren bat betetzen ez bada, ostalariak nahiz bezeroek zigorrak jaso ditzaketela ohartarazi dute, hortaz, lasarteoriatar denek zeregin horretan parte hartzeak "berebiziko garrantzia" du, "arazo ekonomiko edo sanitarioak eta herriaren irudi negatiboa ez sortzeko".

Agintariak izurritearen kudeaketan hartutako erabakiak pairatu dituen sektoreetako bat da ostalaritza eta horregatik "oso kontzientziatuta" daude, "gure jardueraren neurri horiek baldintzatzen dutelako". Gogoratu dutenez, iaz, lau hilabeteko itxiera izan zuten, edukiera mugatuak, ordutegi murriztuak... eta aurtengoa bide beretik doala dirudi. Hori dela eta, beraien lokal eta terrazetan arauak betetzen laguntzeko eskatu diete lasarteoriatarrei, "guztio

senideekin eta lagunekin aisialdi momentu horiez gozatzeko aukera izan dezagun". Hala, gainera, lan egiteko aukera izango baitute, "nahiz eta baldintzak egokiak ez izan".

## Bete behar diren neurriak

Ostalaritza Lasarte-Oria elkarteak bazkide diren establezimenduetan bete beharreko neurrien berri ematen duten kartelak jarri dituzte. Hauek dira indarrean daudenak:

- Ez bazara jaten edo edaten ari, musukoa jantzi.
- 1,5 metroko distantzia mantendu.
- Mahaiak eta aulkiak ez mugitu.
- Gehienez lau pertsona eserita mahai bakoitzeko.

# Indarra eta ausardia duen aSUna bezala

## ASUNAK NESKA\* GAZTEEN TALDEA

Herriko emakumeak\* elkarren artean saretzeko gogotik eman zituzten lehen urratsak aSUnak neska\* gazteen taldeko kideek. Indarrak batu eta kolektiboan ari borrokan



Lasarte-Oriako aSUnak taldeko kideak, iganderako deitu duten tailerra iragartzeko afixak eskuetan dituztela. ASUNAK

### Maddi Zaldua

Antolatuta, elkarrekin, indartsu eta borrokarako gogoz elkartu dira Lasarte-Oriako neska\* gazteak, "feminismoak dakarren goxotasun eta babesaren bueltan". aSUnak izeneko taldea osatu, eta herri feministago bat lortzeko bidean urratsak ematen ari dira; elkarrekin. Zehaztuta dituzte helburuak, eta, noski etorkizuneko erronkak ere bai. Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira ere antolatu dituzte ekintza bat baino gehiago. Guzti horren berri eman dio taldeak TXINTXARRI-ri.

### Nola zen taldea?

Hasiera batean, Buruntzaldeako udaleku feministak antolatzeko asmotan bildu ginen herriko hainbat emakume\*. Baina pandemia egoera zela eta, genituen

mugekin horrelako ekintza bat burutzea ezinezkoa zela ikusita, herrietara mugatutako egitarau bat osatu genuen, *Harrotu eta erein* lelo bateratuarekin. Ondoren, herriko emakumeen\* artean talde feminista bat osatu eta gure artean saretzeko zegoen gogoia ikusita, indarrak batu eta herri feministago baten alde era kolektiboan borrokatzeko taldea sortzeko prozesuari hasiera eman genion, azkenean, aSUnak neska\* gazteen talde feminista bihurtu dena.

### Eta nola antolatzen zarete?

Orain arte blokeka funtzionatu dugu. Bloke bakoitzean gai zentral bat erabakitzen dugu, herriko behar eta gure interesetatik abiatuta. Bloke bakoitzean, hiru lantalde bereizten dira, zehazki, formakuntza, aisia eta amaierako

ekintza. Formakuntzarekin ematen diogu hasiera blokeari, aukeratutako gaiaren inguruan lanketa sakon eta aberasgarriak eginez. Behin blokean murgilduta, hasieratik ikusi genuen talde harremanak sendotzeko aisiari tarte bat egitea ere ezinbestekoa zela, nahiz eta zati hau pandemiak ezarritako mugek asko baldintzatu duten. Azkenik, amaierako ekintza herriari zuzendurik egoten da, blokean zehar egindako lanketa Lasarte-Oriako plazazatzen.

Bestalde, talde antolaketari dagokionez, alde batetik, esandako bloke hauek eta horien barruan egin nahi diren ekintzak antolatzeko talde eragile bat dago eta bestetik, ekintzetan parte hartzeko aukera zabaldu eta ahalik eta pertsona gehienengana iristeko

asmoz, difusio talde bat dugu, herritar orori zabalik dagoena.

### Zergatik aSUnak izena?

Hasieratik izan genuen argi, taldea neska\* gazteen artean saretu, babestu eta ahalduzko elkargunea izatea nahi genuela. Lehen emakumeak suaren inguruan elkartzen ziren bezala, guk ere, geure suaren inguruan elkartu nahi genuen, feminismoak dakarren goxotasun eta babesaren bueltan, taldearen izenean suak duen indarraren bitartez islatu nahi izan genuena. Gainera, feminismoari loturiko balioen transmisioak eta belaunaldien arteko saretzeak duen garrantzia adierazi nahi genuen.

Bestalde, zisheteropatriarkatuak eragiten dituen zapalkuntzak ezagutaraztearekin batera, guregan sortzen duen sumina eta erredura erakutsi eta sistema hau arrakalatzeko eta eraldatzeko dugun gogoia adierazi nahi genuen osin, eta beste era batera esanda, aSUn hitzarekin, sistema honek bezala mina eragiten duen landarea izateaz gain, aSUn hitzak dioen bezala, indarra, ausardia eta kementa eman ditzakeen sendabelarra da, suak bezalaxe, neska\* gazteen barnean feminismoaren alde elkartzeko grina sortzen duena.

Gainera, kolektibotasuna eta aniztasuna aSUnak oinarri direnez, ezinbestekoa iruditu zitzaigun, hitzaren -k atzizkiaren bitartez, taldeak duen pluraltasuna islatzea. Hau da, feminismoa erdigunean jarritz, sisteman eragitea helburu duten pertsona ezberdin asko biltzen dituen taldea izan nahi dugula adieraztea, oraindik ere, gurekin elkartu nahi duten pertsonen zabaldua dagoena.

### Zeintzuk dira taldearen aldarrikapenak?

Ugariak dira aSUnak taldeko kideok egiten ditugun aldarrikapenak. Hasteko, genero parekidetasunaren alde dihardugu borrokan, ulertzen baitugu emakumeok\* eta gure kasuan, neska\* gazteok, sistema honen baita zapalkuntza ezberdinak jasaten ditugula eta antolakuntza kolektiboaren bitartez borrokatu nahi dugula, feminismoa ardatz gisa izanik. Bide horretan, saretze feminista sustatzea ere bada gure aldarrikapenetako bat, aSUnak bezalako, hausnarketarako, ezagutzarako, ahalduzarako, saretzeko, aldarrikapenerako eta

borrokarako espazioak beharrezkoak direla ikusten baitugu, zeinak, identitate kolektibo eta indibiduala garatzen laguntzen duten. Gainera, funtsezkoa deritzogu sistema zisheteropatriarkalari aurre egitea eta horretarako, eredu politiko, sozial, ekonomiko eta kultural berriak sustatzea, zeinak feminismoa erdigunean jartzen duten.

### Herriko puntu beltzak eta emakumeen ikusgarritasun falta identifikatu dituzue. Zerekin egin duzue topo?

Azken bloke honetan, emakumeok\* herriko dugun agerikotasuna lantzen aritu gara. Horretarako, mapa batean puntu beltzak identifikatzeaz gain, emakumeek\* herriko duten presentzia eza azaleratzeko eta gizon eta emakumeen\* arteko ikusgarritasun desorekaren inguruan hausnartzeko, genero bateko eta besteko kale izen eta eskultoreak bilatu genituen, eta gizonezko izenez betetako mapa baten aurrean aurkitu ginen. Beraz, berretsi dugu emakumeak\* ikusezin direla Lasarte-Oriako kaleetan ere. Jakitun gara herriko dauden puntu beltzez, eta horren aurrean dagoen esku-hartze faltaz. Behin paperaren gainean guneak identifikatuta, aisialdi giroan, herriko ibilbide bat egin genuen puntu horiek aurrez aurre ikusi eta emakumeen\* presentzia ikusarazteko.

### Etorkizun laburrera begira jarrita, Martxoaren 8a ate joka daukagu.

Martxoaren 8a, egun berezi eta garrantzitsua izanik, neska\* gazte taldeaz gain, beste eragile feminista eta norbanakoekin elkartu gara egitarau bateratu bat sortzeko asmoz. Hori horrela, martxoak 7an, igandean, goizeko hamar eta erdietan, tailer bat prestatu dugu Antonio Mercero gunean, feminismoaren subjektu politikoaren inguruko hausnarketaren inguruko izango dena. Astelehenean, martxoaren 8an, Oriarte institutuan ekintza ezberdinak burutuko dira goizean zehar. Hala nola, aSUnak taldearen aurkezpena, tailerrak, murala eta kontzentrazioa. Arratsaldean berriz, 19etan manifestazioa izango da Okendo plazatik abiatuta, *Dena aldatu, sistema arrakalatu* lelopean.

Irakurri elkarrizketa osoa  
[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus) atarian





Udal ordezkariak eta teknikaria Martxoaren 8ko egitaraua aurkezteko agerraldian. TXINTXARRI

## Udalaren ekitaldiak Martxoaren 8rako

Emakumeen Nazioarteko Egunerako ekitaldi bat baino gehiago antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalak. Elkarretaratzea deitu dute astelehenerako, Martxoaren 8rako eta, horrez gain, kartel lehiaketa, antzerki obra eta ipuin kontalaria izango dira, besteak beste

### Txintxarri

Otsailaren 26an aurkeztu zuen Lasarte-Oriako Udalak aurtengo Emakumeen Nazioarteko Egunerako prestatu duten egitaraua, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan.

Alkateak azpimarratu egin zuen Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzearen beharra, pandemia dela eta zenbait gizarte arlotatik ekimenak egitearen egokitasuna zalantzan jartzen ari den honetan. Valdiviak adierazi zuenez, emakume askok pairatzen duten arazoa areagotu egin du izurriteak, eta horrez gain, beste gai batzuegatik manifestazioak egiten direla ikusita, "ez litzateke eragozpenik egon behar".

Acevedok gogorarazi zuen Martxoaren 8a ez dela alor politikoarekin bakarrik lotu behar, "ez baita alderdi batzuek besteei jaurtitzeko arma" eta solasaldi nahiz komunikabide batzuetan "pandemiaren foku edo arazo gisa" erabiltzen ari direla gaitzetsi zuen.

### Martxoaren 8ko egitaraua

- **Martxoaren 1etik 9ra.** Kartel lehiaketako lanen erakusketa. Emakumeen zentroan, 17:00etatik 19:00etara.
- **Martxoak 5.** Eidabe taldearen 'Futbolariak eta printzesak' haur antzerkia. Manuel Lekuona Kultur Etxean, 11:00etan eta 15:00etan. (Ikastetxeentzako).
- **Martxoak 6.** Behibi's Teatro Antzerki taldeak 'Trabajos de interior'. Kultur etxean, 19:00etan. Sarrera 3 euro.
- **Martxoak 8.** Elkarretaratzea. Okendo plazan, 12:00etan.
- **Martxoak 9.** Sorgina Pirulina ipuin kontalariaren 'Emakumeak kontu kontari...eta kantari!'. 3 eta 8 urte arteko haurrentzat. Kultur etxeko kafetegian, 18:00etan. Gehienez 12 haur. Gonbidapenak kultur etxeko leihatilan.
- **Martxoak 10.** Kartel lehiaketako sari-banaketa. Emakumeen Zentroan, 18:00etan.
- **Martxoak 20.** Zinegoak jaialdiko film laburren proiektzioa. Kultur etxean, 19:00etan. Gonbidapenak, kultur etxeko leihatilan.

## Mendekotasunaren sektorean lanean ari direnen babesleku

Zaintzaren eta mendekotasunaren sektorean lan egiten duten eta bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko helburuarekin sortu dute kooperatiba

### Txintxarri

Otsailaren 25ean aurkeztu zuten, Hernanin, Maitelan kooperatiba. Berri-Buruntzako udalek (Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Astigarra, Andoain eta Urnieta) eta AHMER-SOS Racismo elkartearen elkarlanetik sortu den irabazi asmorik gabeko kooperatiba integrala da.

Zaintzaren eta mendekotasunaren sektorean errealitatea ezagutzeko hainbat diagnostiko eta ikerketa egin eta gero, eskualdean sektore horretan lan egiten duten eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gizarteratu eta laneratu dituen egitura egonkor bat, inklusio tresna bat, behar dela ondorioztatu zuten, eta 2017an Enplegu Sozialeko plan estrategikoaren baitan zaintza eta mendekotasunaren sektorean lan egiten zuten pertsonekin

kooperatiba sortzeko prozesuari ekin zioten.

2019an, berriz, AMHER-SOS Racismoren inguruan biltzen ziren emakume etorkinen taldearekin kooperatiba bat martxan jartzeko prozesuari ekin zioten, eta, bide horretan, sortu dute Maitelan kooperatiba. Berri-Buruntzako udaletatik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzazioak erraztu du proiektu hori martxan jartzea.

Maitelan kooperatibaren helburua da pertsonen artea eta zaintza nahiz garbiketa zerbitzuak eskaintzea, beti ere, kooperatibako langile eta erabiltzaileak protagonista izanik, euren beharrak erdigunean jarriz.

2020. urtea zaila izan da kooperatibaren bideragarritasunarentzat, baina aurkezpen ofiziala egin dute bidelagunei eskerrak eman eta proiektua ezagutzera emateko.



Otsailaren 25ean aurkeztu zuten Maitelan kooperatiba. HERNANIKO UDALEKO ENPLEGU SOZIALA

# Mesa eta Gonzalez, Euskadiko txapelkun

Ostadar Atletismoa taldeko zazpi atletak parte hartu dute Euskadiko txapelketan. Amane Mesa eta Enara Gonzalez euren probetan irabazle izan dira. Bi urrezko dominaz gain, brontzezko beste bi ere gehitu dituzte poltsara pistako denboraldi amaieran

## Txintxarri

Pista estaliko denboraldia ederki amaitu dute Ostadar Atletismoa saileko kideek. 20 urtez, 18 urtez eta 16 urtez azpiko taldeko kideak Euskadiko Txapelketan parte hartu eta bina urrezko zein brontzezko domina lortu zituzten gazteek. Ostadarreko atletez gain, Zumeatarra taldeko Unai G. Somovilla eta Aimar Sukunza herritarrak ere lehiatu ziren 20 urte azpiko 1.500 metro proban.

Herriko taldeak zazpi atleta izan zituen Donostiako belodromoan jokatu zen txapelketan. "Emaitzengatik pozik gaude, baita txapelketan zazpi atleta egon ahal izateagatik ere. Egoera dela eta, Euskadiko Federaziok baldintzak eta murrizteak ezarri ditu eta aurten zailago zegoen sailkapena lortzea," nabarmendu du Oscar Goikoetxea prestatzaileak.

## Markak ontzen

Jauzi probetan ederki dabilta Ostadar Atletismoko kideak. Naroa



Enara Gonzalez (ezk.) eta Leire Centeno (esk.), dominekin. OSTADAR ATLETISMOA

Furundarenaz gain, jauzi hirukoitza eta luzera-jauzian Espainiako onenen artean dabil, luzera-jauzian eta altuera-jauzian ere bada etorkizuna, Enara Gonzalez, Amane Mesa eta Nora Capistegui.

16 urtez azpiko altuera-jauzian lehen postua eskuratzeko lehia interesgarria ikusi ahal izan zen 1,40 metroko langan. Ostadar Atletismoko Amane Mesak eta Nora Capistegui, Real Sociadako Ane Arrospide eta

Atletico San Sebastian taldeko Uxue Uriain izan zituzten arerio. Baina 1,40 metroko langa ezin izan zuten gainditu, eta lehen lauek 1,35 metroko marka egin zuten.

Mesak "bere egunik onena" ez izan arren, 16 urtez azpiko urrezko domina eskuratu zuen. Jauzietan ez zuen akatsik egin eta lehenengoan igaro zituen 1,30 eta 1,35 metroko langak. Horri esker, garaipena lortu zuen.

Capistegui berriz, 1,30 metroko langa bigarrenen igaro zuen eta 1,35 metrokoarekin arazoak izan zituen. Azken saiakeran lortu zuen igarotzea. Horrek laugarren postura eraman zuen.

20 urtez azpiko luzera-jauzian izan zen beste berri pozgarria. Enara Gonzalez lehen saiakeratik jarri zen probako lehen postuan, 5,37 metroko jauziarekin. Eta hirugarrenean 5,39 metro iritsi zen. Horri esker, urrezko dominaz gain, bere denboraldiko markarik onena ere egin zuen gazteak.

## Brontzezko dominak

Iraupen-erdiko lasterketa batean, zein abiadura batean etorri ziren beste bi dominak.

800 metroetako 20 urtez azpiko proban Leire Centeno hirugarren izan zen, 2:48,16 markarekin.

Eta 60 metroetako lasterketan, Alex Alkain hasiberriak 16 urte azpiko brontzezko domina jantzi zuen finalean bere onena eman

eta marka pertsonala onduz, 7,73.

Abiadura probetan ere Ostadar Atletismoko beste bi kide izan ziren: Unax Riezu eta Maider Abete. Biak finalean egoteaz gain, bosgarren postuan amaitu, eta marka pertsonal berria egin zuten. Riezuk 16 urtez azpiko proban 7,81 denbora egin zuen, eta Abetek, 20 urtez azpikoan, 8,38koa.

Bestalde, 20 urtez azpiko iraupen-erdiko 1.500 metroetan ere herriko atletak izan ziren lehian. Zumeatarra taldeko Unai G. Somovillak eta Aimar Sukunzak parte hartu zuten proban. Sukunzak ezin izan zuen proba amaitu; Unai G. Somovillak, berriz, seigarren postuan amaitu zuen 4:46,60 denbora eginez.

## Eskolarteko maila martxan

Emaitzez gain, Ostadar Atletismoa saileko kideak pozik daude, eskolarteko mailako kirolariak berriro ere martxan daudelako. Lasarte-Oria gunen gorrian izan den bitartean, taldeko prestatzaileek ezin izan dute lan egin gaztetxoekin. Orain, maila guztietako atletak Michelin kirolguneko pistan ari dira lanean.

## URREZKO DOMINAK JAUZI-PROBETAN LORTU DITUZTE OSTADAR ATLETISMO TALDEKO KIDEEK

## Ostadar SKTko boleibol taldea berriro ere lehian hasiko da

Irekiera txapelketa bertan behera geratu da eta Gipuzkoako Txapelketari aurre egin behar dio taldeak

## Txintxarri

Ostadar SKTko boleibol taldeak denboraldiari berrekingo dio. Ia urtebete egon da boleibol taldea lehiaren bizia probatu gabe. 2020ko martxoan Gipuzkoako Txapelketa bertan behera geratu ostean, 2020-2021 denboraldi berria ilusioz prestatzen hasi zen taldea. Urrian irekiera txapelketa hasi behar zuen pandemiaren egoerak ordea, ez zuen jardunaldi bat ere jokatzeari ahalbidetu.

Geroztik, osasun-egoerak baimendu dien neurrian, boleibol

ataleko jokalariek entrenatzen aritu dira eta taldeko kideek jakitera eman dutenez, bi etenaldi izan dituzte, azaroan eta urtarrilean.

Bihar, martxoak 6, larunbata, Gipuzkoako Txapelketako lehen jardunaldian berriro aterako dira kantzara hilabete hauetan guztietan ikasitakoa praktikan jartzeko. Taldeko kideek jakitera eman dutenez, "orain inoiz baino gogo gehiagorekin gatoz. Jokalariek esperientzia hartu dugu, jokalariek berriak taldera batu dira..."



Ostadar Boleibol taldea, 2019-2020 denboraldiko partida bat lehiatzen. TXINTXARRI

## Gipuzkoako Txapelketa

Asier Acuriola prestatzailearen taldeak zortzi talde izango ditu aurrez aurre bihar hasiko duen Gipuzkoako txapelketan. Senior

eta junior mailako taldeek multzo bakarra osatuko dute. Ondorioz, Fortuna A, Fortuna B, Goierri Senior, Goierri Junior, Lizardi, Aldapeta Maria, Kostkas eta

Hernani izango dira Ostadar SKTren arerioak.

Aurreko denboralditik ezagunak dituen taldeak dira gehienak. Ez da ahaztu behar Ostadar SKTren taldea 2018-2019 denboraldian sortu zela. Orduan, bosgarren amaitu zuen Gipuzkoako Txapelketako lehen fasea eta iaz txapelketa eten zenean ere postu bera zuen.

Gipuzkoako Txapelketa itzuli bakarrekoa izango da. Bederatzi jardunaldi izango ditu, eta guztia ondo bidean, bihar, martxoaren 6an hasi, eta maiatzaren 22an amaituko da.

Beraz, indarrak neurtzeko garaia iritsi zaie berriro ere guztiei eta bihar Asier Acuriolak gidatzen duen taldeak Fortuna A izango du aurrez aurre. Partida Donostiako Pio Baroja kiroldegian jokatu da.

# Añorga KKEk, garaipen garrantzitsua Bilbon

Izaskun San Aniceto herritarrak paper garrantzitsua izan zuen partidari; Añorgaren lau goletatik bi egin zituen lasarteoriatarak. Denboraldiko lehen ligaxka amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Añorga KKEk hurrengo faserako txartela eskuratu du

## Txintxarri

Añorga KKEk pausu handia eman zuen igandean, otsailaren 28an, San Ignacio taldea garaitzean. Irabazitako hiru puntu horiek hurrengo faserako sailkapena eman diote Añorgako taldeari.

Partida hasi baino lehen, San Ignacio eta Añorga, Bizkerrerekin batera nazional mailako 2.B multzoko bigarren postuarengatik zeuden jokoan. Partida gogorra aurreikusten zen, beraz, igandean San Ignacio zelaian.

Añorgaren hamaikakoan Izaskun San Aniceto eta Ainara Del Olmo herritarrak atera ziren zelaia eta San Anicetok paper garrantzitsua izan zuen Añorgaren garaipenean.

Lehen minutuetan bi taldeak markagailua inauguratuko zuen golaren bila atera ziren eta Añorga izan zen lehena gola egiten. 11. minutuan San Ignacioren area ertzean falta adierazi zuten epaileak eta eta Vanessa Cartonek atezaina goitik gainditu zuen.

Lau minututa, Añorgak tartea handitu zuen Izaskun San Aniceto herritarraren golari esker. San Anicetok bakarkako jokaldia ederki amaitu zuen ezker hankarekin, baloia eskuairara bidaliz.

Bi eta hutsekoak ez zuen partidaren erritmoa moteldu. Bi taldeek behar zituzten puntuak bigarren postuan sailkatzeko eta eraso saiakera ugari egon ziren.

22. minutuan, ordea, San Ignaciok tartea murriztu zuen. Nadia Fernandezek area barneko falta bota eta Añorgaren atera sartu zen baloia.

Añorgak garaipena zuen buruan eta ez zuen gol batengatik etsiko. Behin eta berriro saiatu zen arerioaren atera iristen. Era horretara, 33. minutuan etorri zen fruitua. Malen Urangak korner bateko alderatzea jaso

eta zurtoin albotik sartu zuen gola.

Atsedendira arte borrokan egon ziren bi taldeak. Baina epaileak lehen zatiaren amaiera seinatatzeko markagailua 1 eta 3koa zen.

Bigarren zatian, berdin jarraitu zuen partidak. Bi taldeek aukerak izan zituzten, baina Añorga izan zen arerioaren atean arrisku gehien sortu zuen taldea.

Eta 75. minutuan etorri zen Añorgaren laugarren gola. Izaskun San Aniceto herritarrak eguneko bere bigarren gola egin zuen. Arian erdiraketa bat jaso eta baloia atera jausti zuen San Ignacioko atezaina gaindituz.

Partida amaieran, beraz, Añorga 1-4 gailendu zen jokalariren lanari esker.

Gainera, hiru puntuei esker, 25 punturekin multzoko bigarren postuan da eta hurrengo faserako txartela eskuratu du.

Hori hasi baino lehen, bi partida falta dira lehen liga amaitzeko. Igande honetan, Aurrera de Vitoriaren aurka jokatu dute Añorgako Rezola zelaian eta martxoaren 21ean, berriz, Tolosa CF izango du arerio.

## Goiko postuetan mantendu

Iberdrola Ligan, berriz, Iraia Iparragirre herritarra kide duen Real Sociedad taldeak 3-1 garaitu zuen Real Madrid.

Nahiz eta partida galtzen hasi, Franssiren eta Nerea Eizagirrerren golekin eman zioten garaipena talde txuri-urdinari.

Azken bi jardunaldietan, puntu bakarrik eskuratu ostean, goiko postuetan mantentzeko beharrezko puntuak lortu zituen Realak. Egun, 34 punturekin sailkapeneko zazpigarren postuan da eta hirugarren postua lau puntura du. Igandean, puntuak lortzeko aukera berria izango dute. Realak Deportivo Abancaren aurka jokatu du, 11:00etan, Zubietan.



Izaskun San Aniceto eta Añorgako beste jokalaria, gola ospatu ostean. ANGEL FONT



## “Errealitate ezberdin asko ezagutzeko aukera izan dut unibertsitatean”

Ane Iurtia (Lasarte-Oria, 22 urte) Haur Hezkuntza graduko laugarren ikasturtea egiten ari da Mondragon Unibertsitatean.



### Definitu apur bat zure burua.

Lasarte-Oriako Landaberri ikastolan ibili naiz eskolan eta batxilergo Lasarte-Usurbil Institutuan egin nuen. Oso gustuko dut niretzat espazio eta denbora hartzea. Bestalde, herriko euskal dantza taldean ere banabil.

### Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Txikitatik izan dut hezkuntzarako bokazioa, nahiz eta ordutik asko aldatu zaidan hezitzailearen lanaren ikuspuntua. Ate irekietan entzun eta ikusitakoak erakarrira hautatu genuen Mondragon Unibertsitatean matrikulatzea.

### Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Dena izan da berria. Nire ibilbidea aberatsa izatea ahalbidetu duten harreman

asko eraiki ditut irakasle eta ikaskideekin. Bestalde, errealitate ezberdin asko ezagutzeko aukera izan dut unibertsitatean bertan, eta batez ere, Latinoamerikan sei hilabeteko egonaldia burutu nuenean. Kosta egiten zait hitz gutxitan deskribatzea hilabete horietan zehar ikusi, ikasi eta bizi izan nuena. Beraz, nire esperientzia benetan aberasgarria izan da.

### Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Pertsonarengan jartzen du fokua, era berean landuz harremanak, autonomia, autotzagutza, gizartea, gaur egungo errealitatea, etab. Orokorrean jasotzera ohituta gauden metodologiekin alderatuta oso ezberdina da, urteetan zehar barneratutako zenbait eskema hautsi eta ze-

rotik hasi beharra dago aspektu askotan, eta hori ez da erraza, konfiantza handia jartzea eskatzen du, baina merezi du. **Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta hobetzekorik?**

Epaiketarik gabeko konfiantzazko talde giroa eraikitzean fokua jartzeak, eta lau urteetan zehar irakasle gehien goak hartu duen bidelagun paperak asko aberastu du nire ibilbidea. Bestalde, atzerriko egonaldiak egin ahal izateko eskaintzen diren erraztasunak asko eskertu ditut. Hobetzekoari dagokionez, gurea berrikuntzan murgildutako lehenengo promozioa izanik, batzuetan epe laburrean zertokigunaren inguruko informazio eta zehaztasun falta sumatu dut.

# Igerilariak, markaz marka aurrera

Buruntzaldea IKTKo igerilariak kontrol txapelketa izan dute asteburuan. Markak onduz, prestaketan aurrera doaz. Guztira, 24 denbora hobetu zituzten. Horien artean, taldeko bi errekor eta Euskadiko Txapelketarako gutxieneko bat

## Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo igerilariak kontrol-lehiaketako proba berria izan izan asteburuan. Hitzordu bikoitza izan zen: batzuk, Donostiako Benta Berri kiroldegian lehiatu ziren, eta besteak, Tolosako Usabal kiroldegietan. Guztira, taldeko 17 urteko bi errekor berri eta 24 marka pertsonal berri lortu zituzten.

Otsailaren 27an, arratsaldean, Iker Gorostegui, Jon Pelayo eta Iker Gandia igerilari gazteek bere bigarren lehiaketari aurre egin zioten Donostian eta euren markak ondu zituzten.

Iker Gorostegui bi marka pertsonal berri egin zituen: 100 m. tximeleta, 1:16,25 eta 200 m. lau estiloak, 2:45,06an.

Jon Pelayok 100 m. eta 50 m. bular probetako markak onteza lortu zuen, 1:28,82 eta 39,84, hurrenez hurren eta 100 m. lau estiloetako marka ere hobetu zuen, 1:20,53.



Tolosako saioan parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Iker Gandiak, berriz, 50 m. tximeletan ezarri zuen marka berria, 36,60.

Igande goizean, Buruntzaldea IKTKo emakumeen txanda izan zen, Tolosako Usabalen. Horiek ere zenbait marka apurtu zituzten.

Aintzane Sarobek 100 m. tximeletako marka pertsonala ondu zuen, 1:09,41an kronoa geratuz. Marka horri esker, gainera, taldeko 17 urteko marka berria ezarri zuen; orain arte, Itsaso Tolosa egungo entrenatzaileak zuen.

100 m. lau estiloak proban, marka pertsonalik egin ez zuen arren, Sarobek proba honetan ere taldeko errekorra kendu zion Tolosari 1:11,80 eginez.

June Lopezek 50 m. eta 100 m. librean hobetu zituen bere markak, 30,79 eta 1:04,80, hurrenez hurren.

Izaro Audikanak hiru marka pertsonal berri ezarri zituen: 200 m. librean, 2:21,53; 200 m. lau estiloetan, 2:49,93 eta tximeleta estiloko 50 metroetako proban, 38,30. Saioa Elolak 400 m. librean egin zuen marka pertsonala, 5:12,60.

Garazi Etxeberriak, berriz, hiru erregistro "eder" egin zituen; bata 400 m. librean, 4:51,25; bestea, 50 m. libre proban, 28,72 eginez eta hirugarrena 100 m. lau estiloetan, 1:13,74an amaiera iristean. 50 m. libreko markak gainera sari bikoitza zuen, Euskal Herriko absolutu mailako gutxienekoa ere baita. Beraz, Etxeberriak lehendik bazuen 100 m. libreko gutxienekoari batu dio marka berri hau.

Saio honetan, Nora Imazek ere parte hartu zuen. Imazek marka pertsonalik egin ez arren, 100 m. eta 200 m. libre probetan txukun aritu zela nabarmendu du Borja Apeztegia igeriketa taldeko prestatzaileak.

Asteburua amaitzeko, igandeko arratsaldean, Buruntzaldea IKTKo Mikel Esnal, Aimar Sukunza, Eneko Elizasu, Unai

G. Somovila eta Julen Azpiroz lehiatu ziren.

Eneko Elizasuk 50 m. eta 100 m. libre probetako, zein 50 m. bular probako markak onteza lortu zuen. Lehenengoan 26,50 egin zuen; bigarrenetan kronoa 56,53an geratu zuen eta bular estiloko proban, 34,18 "on bat" burutu zuen.

Aimar Sukunzak bi probetan hobetu zuen marka: 100 m. libre, 1:06,28an eta 50 m. tximeleta, 35,22.

Julen Azpirozek ere bi probetan ondu zuen marka; 50 m. libre eta 50 m. tximeletakoa probetan izan zen eta 29,66 eta 34,56 egin zuen, hurrenez hurren.

Unai G. Somovillak 50 m. libreko marka pertsonal berria egin zuen, 27,92an.

Mikel Esnalek ez zuen marka pertsonalik egin lehiaketa horretan. 50 m. tximeleta proba ordea, berriro ere 26 segundoen inguruan amaitu zuen. "Bere marka onenera pixkanaka aurrera joan ahala gero eta azkarrago ari da. Estilo libreko 50ekoan egindako 25,03a ere horren adibide da", azpimarratu du Apeztegiak.

Asteburu honetan, taldeko bost igerilariak, "Aintzane Sarobe, Nora Imaz, Unai G. Somovilla, Eneko Elizasu eta agian Garazi Etxeberriak ere", Absolutu mailako Neguko Euskal Herriko Txapelketan parte hartuko dute, Iruñean.

## Intzako bikoteak, ezin lehen fasea garaipenarekin amaitu

Ezker Hormako txapelketako azken jardunaldian, seniorrek ezin izan zuten Gazteleku mendean hartu

## Txintxarri

Intzako bigarren senior mailako bikoteak ezin izan du Ezker Hormako txapelketako Liga partidariak galdu gabe amaitu Andoaingo Gazteleku taldeko bikotea 22-9 gailendu zen larunbatean jokatutako partidari.

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elolak osatutako bikoteak partida gogorra jokatu zuen Etxezarreta eta Arrateren aurka.

Lehen tantoetan aurretik egotea lortu zuen Intzako bikoteak, baina 9 eta 8tik aurrera partida zaildu zen. "Tanto oso gogorrak jokatu genituen 14-9koa arte",



Intzako bikotea. TXINTXARRI

aipatu du Jon Pello Artetxe aurrelariak.

Ostean, berriz, arerioa 22ra erraz iritsi zela ere onartu du.

"Etxezarreta aurrelariak indarrez kantxatik atera gintuen. Sakez, boleaz eta gantxoaz egin zigun mina. Eta atzelariak, Arratek, fin-fin pelota bat ere galdu gabe, defentsan lan handia egin zuen. Gainera, amaieran erraz ibili zen jokoa", azaldu digu.

## Igoera helburu

Nahiz eta azken partida hau galdu, Intzako bikoteak ez zuen ezer jokoa. Hiru hilabeteetako etena baino lehen, finalerdietarako sailkatua zegoen.

Orain, arerioaren zain dago bikotea. Asteburu honetako emaitzen arabera, finalerako txartela noren aurka jokatuko duten jakingo dute. Izan ere, beste multzoan COVID-19ak atzeratutako partidak baitaude jokatzeke. Bikotearen helburua finalera iritsi eta lehen mailako igoera lortzea da.

## Pilota egokitua ere martxan jarriko da

XI. Gipuzkoako Euskal Pilota Egokituko txapelketa martxoaren 6an hasiko da. Ostadar Inklusioa taldeko Ander Altunak gurgildun aulkiko gomazko paleta egokituko lehiari parte hartuko du buruz buruko txapelketan, zein bikotekako txapelketan eta Mindara elkartearen dagoen Lander Ortega herritarrek, berriz, adimen urritasuna duten pertsonen mailan lehiatuko da, zehazki, multzo gorrian.


Adimen urritasuna duten pertsonen mailako lehia izango da gehien iraungo duena: sei jardunaldi izango ditu. Bihar, martxoaren 6an jokatuko da lehena, eta ekainaren 26an amaituko dute lehia. Ortegaren multzoak, ordea, lau jardunaldi jokatuko ditu: martxoaren 13an eta 20an, maiatzaren 15ean eta ekainaren 26an. Azken jardunaldi horretan sari-banaketa izango da.

Gurgildun aulkiko buruz buruko txapelketa ere bihar hasiko da Usurbilen eta lau jardunaldi izango ditu. Horieta bat Lasarte-Orian jokatuko da. Bikotekako txapelketa, berriz, martxan jarriko den azkena izango da. Ekainaren 5ean eta 12an jokatuko dituzte jardunaldiak eta ekainaren 26an, Zumaian, final handien jardunaldia izango da.



GKEF

## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Sara**  
Zorionak Politte!!!  
Jarraitu horrela  
Zarena zarelako  
Zure lekua baduzu  
Bermatu, lotu, bilatu  
eta aurkituko duzu.  
Gure bihozetan handiena.  
Etxekoan partez!!!



**Goyo**  
Zorionak aitatxo!! Muxu  
haundi bat zure bi  
nesken partetik! Maite  
zaitugu!



**Maialen**  
Zorionak!! Azkenean zure  
eguna iritsi da. 11 muxu  
etxeko guztien partetik.



**Oier**  
ZORIONAK bihotza!! Ondo  
pasa zure urtebetetzea  
egunean; hamabi urte eta  
hamabi muxu handi  
Enaut, aiton-amoneta eta  
familiarren partetik.



**Iñigo**  
Zorionak politaaaa!! 8  
urteee!! Askok disfrutatu  
eta muxu erraldoi bat  
familiarren partez!!!



**Xuhar**  
Zorionak Xuhar! Akabo  
txikitxo esateari!  
Txokolatzeko 8 muxu  
handi aitona Joxean eta  
amoneta Rosaren partez.



**Iñigo**  
Zorionak Tarzan!! Iaz libratu  
zinen bazkaria prestatzeaz  
baina aurrean exigentzia  
bikoitza izango dugu! Ondo  
ospatu! Muxuak!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

### Internet

Txintxarri.eus-en  
txintxarri.eus/zorionagurra eta  
Bidali zure zorion agurra  
formularioa bete.  
Urtebetetze egunean bertan  
argitaratuko da webgunean eta  
ostiralean Txintxarri paperean.

### Posta elektronikoa

Mezua bidali  
txintxarri@txintxarri.eus  
helbidera, eta idatzi: izen-  
abizenak, urtebetetze-eguna eta  
nahi duzun testua.  
Ez ahaztu irudiaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 5 GANDARIAS-URIBE  
LARUNBATA, 6 DE MIGUEL  
IGANDEA, 7 DE MIGUEL  
ASTELEHENA, 8 DE ORUE  
ASTEARTEA, 9 DE MIGUEL  
AZTEAZKENA, 10 LASA  
OSTEGUNA, 11 GIL

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943 55 17 93


Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia  
eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera  
(www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


### Ostirala, 5



### Larunbata, 6




### Igandea, 7




### Astelehena, 8




### Asteartea, 9



### Asteazkena, 10



### Osteguna, 11



## HILDAKOAK

**Patxi Olazabal Reguillaga.** Martxoaren 3an.

**M<sup>a</sup> Olga Lopez Montesinos.**

**Maria Caballero Carrillo.** Martxoaren 2an.

**Nieves Espinal Sola.** Martxoaren 1ean.

**Gabriel Sorrondegui Urruzola.** Martxoaren 1ean.

**Marcelino Sanchez Torrado.** Otsailaren 26an.

**Amaia Lobato Garcia.** Otsailaren 25ean.

**Pedro Ignacio Tellaetxea Miron.** Otsailaren 20an.

## OHARRA

### Biyak-Bat elkarteko bulegoa itxita

Lanak direla-eta, martxoaren 8tik 14ra Biyak Bat elkarteko bulegoa itxita egongo dela jakitera eman du elkarteak.

### La Esperanza auzo-elkartearen batzarra

La Esperanza auzo-elkarteari urteroko batzarra egingo du Karmengo Amaren kaperan martxoaren 7an, igandearekin. Lehen deialdia goizko 10:00etan izango da eta bigarrena, 10:30ean.

Batzarrean auzo-elkarteko estatutu berriak, 2020. urteko kontuak eta auzo-elkarteko zuzendaritza berriko kideak eztabaidatuko dira. Galdera eta erreguak egiteko tartea ere izango da.

## SUDOKUA

2	5				9	8		3
8	9					4		
1	7						2	
		8					5	
		5	6		7			
9	2	3	1	5				8
			9	4				
5	9							7
		8				1	3	9

## AZOKA TXIKIA

### LANA ESKAINTZA

Biyak Bat adinekoen egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizezkoen ile-apaintzaile bat. Gainera, taberna kudeatzeko langileak ere behar dituzte. Interesatuak egoitzara hurbildu behar dira asteartean eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

### ESKARIA

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire buruak. Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89. Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean bi egunetan eta arratsaldean etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 646 48 58 11.

Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka pertsona adinduak zaindu edo tabernetako garbiketako lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketako lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketako lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitaleetan gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

### SALEROSKETA

#### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aukia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

### NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

#### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) [publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus) 646.824466

## ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz  
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943 37 14 48**

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldua eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Iratzi Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

#### Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola,  
Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza,  
Jose Lanchas, Iñigo Garcia,  
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua:

SS-513/94  
ISSN: 1134-0053  
Tirada: 8.350 ale

## BABESLEA



LASARTE-ORIA  
UDALA


## DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



## LASARTE-ORIA Emakumearen nazioarteko eguna

Martxoaren 8a, Emakumearen nazioarteko eguna da. Hori gogora ekartzeko Lasarte-Oriako Udalak eta hainbat eragilek ekintza ezberdinak antolatuta dituzte hurrengo egunetarako. Astelehenean, Emakumearen Nazioarteko Egunean bertan, elkarretaratzea eta manifestazioa izango dira gure herrian.

## OSTIRALA 5

### LASARTE-ORIA Erakusketa

2021. urteko Martxoaren 8ko kartel lehiaketaren erakusketa ikusi eta bozka emateko aukera dago martxoaren 9a arte. Sexuen elkarbizitzarako emakumearen zentroa, 17:00etatik 19:00etara.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gazteek Eidabe kultur ekimenak eskainitako *Futbolariak eta printzesak* antzerkiak gozatu dute. Manuel Lekuona, 11:00etan eta 15:00etan.

## LARUNBATA 6

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Bebibis Teatro Antzerki taldeak *Trabajos de interior* lana antzeztuko

du. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

## IGANDEA 7

### LASARTE-ORIA Tailerra

Neska\* gazteak eta feminismoa tailerra egingo du aSUnak taldeak. Feminismoaren subjektu politikoaren hausnarketa egingo dute. Izena-ematea instagram bidez. Antonio Mercero aretoa, 10:30ean.

## ASTELEHENA 8

### LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Emakumearen Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egingo du aSUnak taldeak Oriarte BHI. Oriarte BHI, 10:45ean.

### LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Emakumearen Nazioarteko Egunean elkarretaratzea egiteko deia egin du

Udalak. Okendo plaza, 12:00etan.

### LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Emakumearen Nazioarteko Egunean manifestazioa deitu du aSUnak taldeak. Okendo plaza, 19:00etan.

## ASTEARTEA 9

### LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Sorgina Txirulinak 6 eta 8 urte bitarteko haurrei zuzendutako *Emakumea kontu kontari... eta kantari!* kontaketa egingo du Manuel Lekuona, kafetegia, 18:00etan.

## ASTEAZKENA 10

### LASARTE-ORIA Sari banaketa

2021. urteko Martxoaren 8ko kartel lehiaketako sari banaketa. Sexuen elkarbizitzarako emakumearen zentroa, 18:00etan.

## OSTIRALA 5

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbosera ekimenak Lesboseko errefuxiatuen kanpamentuko egunerokoaz sentsibilizatu eta bizi duten egoera latza salatzen argazki erakusketa antolatuta du. Argazkiak Miren Bardaji herritarrenak eta Yousef Alshewailik errefuxiatuak ateratakoak dira. Martxoaren 14 arte.

Antonio Mercero aretoa, astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan, 11:00etatik 13:00etara.

### ANDOAIN Antzerkia

*De Gernika a Nueva York, pasando por Berlín* antzezlana eskainiko dute Tentazioa Produktzioak eta Baleukok. Sarrera, 12 euro.

Bastero kulturgunea 19:00etan.

## LARUNBATA 6

### USURBIL Dokumentala

*Reboiras: acción y corazón* dokumentala eskainiko dute. Tadamun elkarteak antolatutako ekimena. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelaniazko azpidatizkiekin. Sarrera doakoa da. Edukiera mugatua da, horregatik, sarrerak alde aurretik

[usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) orrialdean eskuratu behar dira. Sutegiko auditorioa, 17:00etan.

## ASTEAZKENA 10

### LASARTE-ORIA Emanaldia

Opera digitalaren atalean, Giuseppe Verdiaren *Rigoletto* lana ikusteko aukera izango dute zaletuak. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelaniazko azpidatizkiekin. Sarrera, aurrez 7,5 euro; egunean, 9 euro.

Manuel Lekuona, 18:00etan.

### HERNANI Antzerkia

*Panpina* antzezlana eskainiko du Erika Olaizola zuzendari eta aktoreak. Erika Rooibos aktorearen argilunak erakutsiko ditu umorea eta performance kutsuko aktore lan fisikoak lagunduta. Sarrera doakoa da, baina gonbidapena behar da. Azken horiek Plaza Feministan eskuratu daitezke, edo email bidez: [berdintasuna@hernani.eus](mailto:berdintasuna@hernani.eus).

Biteri kulturetxea, 19:00etan.

## OSTEGUNA 11

### ANDOAIN Antzerkia

*Txanogorrixtatik otso emera. Sei mutil medio* antzerkia eskainiko du. Aitziber Garmendiak interpretatzen du Kepa Errastik euskarara moldatu duen Marta González de Vegaren jatorrizko testu

bikain eta barregarria. Sarrera, 12 euro. Bastero kulturgunea, 19:00etan.

### USURBIL Solasaldia

*Simone de Beauvoir: Bigarren sexua(z)* collage filma eskainiko da. Iratxe Fresneda eta Nora Alberdik Simone De Beauvoir idazlearen entsegu famatuaren ildoak helduz egindako lana da. Ostean, entsegu euskarara ekarri duen Irene Arrarats Lizeaga itzultzailearekin solasaldia izango da. Sarrera doan. Edukiera mugatua da; sarrerak alde aurretik [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) atarian eskuratu behar dira. Potxoenea, 19:00etan.

## OHARRA

TXINTXARRI aldizkariak agenda hau argitaratu duen egunera arte, bertan proposatutako ekintzak ez dute aldaketarik jasan, koronabirusa dela eta.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**El pequeño vampiro**  
Igandea: 17:00.

#### HERNANI

#### BITERI

#### Dragoiaren gidaria

Larunbata: 16:00.  
Igandea: 16:00.

#### La tercera esposa

Larunbata: 19:00.

Igandea: 19:00.  
Astelehena: 16:30.

#### USURBIL

#### SUTEGI

#### Alfonbra magikoa

Igandea: 17:00.

#### URNIETA

#### SAROB

#### Erlauntza

Ostirala: 19:00.



## LABURPENA

### El pequeño vampiro

**Zuzendaria:** Joann Sfar. **Gidoia:** Joann Sfar eta Sandrina Jardel. **Musika:** Olivier Daviaud. **Animazio zuzendaria:** Adrien Gromelle. **Arte zuzendaria:** Antoine Delesvaux. **Argazki zuzendaria:** Hugues Espinasse. **Herr:** Frantzia (2020). **Iraupena:** 85 minutu.

## Banpiro txikiaren abenturak

Igandea honetan, haur eta gaztetxoek *El pequeño vampiro* animaziozko filmaz gozatu ahaliko dute.

Joann Sfar zuzendariak berak marraztutako komikietan oinarritutako filma da *El pequeño vampiro*.

Vampir hamar urteko banpiro txikia da. Bere amarekin eta familia

bereziarekin bizi da etxetzar batean. Hiru mendetan ez da bere etxetik atera. Aspertuta dago eta lagunak egiteko ikastolara joatea erabakitzen du. Bertan, Miguel gizakia ezagutzen du eta bere lagun egiten da. Kontu handiz ibili behar da Vampir, ordea, iraganeko norbait bere bila dabil eta.



**Ate Irekiak**  
**Martxoak 10**

HARTU  
HITZORDUA!!!

943 364600  
adkomunikazioa@lhusurbil.eus

**www.lhusurbil.eus**

**USURBILGO LANBIDE ESKOLA**  
CIFP USURBIL LHII

**Erdi Maila: 17:00**  
**Goi Maila: 18:00**



**MARTXOAK 4 - 24**  
Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

**Plateretik baratzera**

errigora.eus

errigora

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra -5 litroka- eta arroza, pasta eta kontserbak -12 ontzika- euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



**txintxarri**  
*Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan, doan eta euskaraz*

**“KRISI GARAIAN, PUBLIZITATEA DA INBERTSIORIK ONENA”**

**HORREGATIK... DESKONTU BEREZIAK DITUGU HERRIKO KOMERTZIO, ENPRESA ETA OSTALARIENTZAT**

**ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66**